

# 2015ko Aurrekontuen Proiektua

\* **Gastu korrontearen kontrola eta inbertsio maila handia hiriko esku-hartze emankorretan: jarduera ekonomikoa biziberri-tzeko eta sektore berriak sustatzeko aukerak ematen dituzten eremuak.**

\* **Zorroztasun ekonomikoa, aurrekontu egonkortasuna eta gardentasuna ezaugarri.**

## Getxok bizi kalitatea eta gizarte politikak sustatzen jarraituko du 2015ean ere

Zorroztasun ekonomikoa, gardentasuna, hiriarentzako zerbitzuak, krisiari aurre egiteko elkartasuna, enpleguaren lehentasuna, etorkizuna eraikitzen jarraitzea, hiri aktiboari eta bizi kalitateari eustea: lehentasunezko ardatz horiek gidatuko dute 2015eko Aurrekontua ere. Udalaren Aurrekontu Orokor bateratua (erakunde autonomoak barruan hartzen dituena) 97,1 milioi eurokoa da, 2014koa baino 1,2 milioi euro txikiagoa. Aurreko ekitaldian indarrean egon den aurrekontua luzatzea


onartu da urtarrilean, eta horrek bidea ematen du, aurten izapidetuko diren aldaketan bitartez, 2015eko aurrekontu proiektua gauzatzeko.

Helburua da bizi kalitatea eta zerbitzuak bermatzea, Getxok jarrai dezan hiri erakargarria izaten, bizitzeko eta lan egiteko segurua; krisi ekonomikoak eragindako pertsonen laguntzea, lehentasuna emanez gizarte politikari eta enplegua sustatzeko lankidetzarako politikari; etorkizuna bermatuko duten inbertsioak eta neurriak lehe-

nestea. Helburua da, azkenik, aurrerantzean ere Getxo hiri bizia izan dadin lortzea, kultura, kirol eta gizarte jardueren bitartez, haren turismoa eta nazioartekotzea sustatuz, etorkizuneko iraupen ekonomikorako tresna gisa. Getxo batua eta lehiakorra lortzea.

Aurrekontu honekin ez dugu hipotekatu nahi Udalaren kaudimena, ez dugu baldintzatu nahi 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeetatik sortuko den Korporazioa. Datorrenak

udal saneatua jasoko du, konpromisoeri aurre egiteko baliabideak edukiko ditu, baita abian diren proiektuak eta zerbitzu onak ere. Legegintzaldi honetan gastu publikoaren neurritasunaren alde apustu egin da, gastu korrontea zentzuzko mugatik harantzago finkatu gabe, zorpetzea saihestuz, eta Erakundeak etorkizunari berme egokiekin aurre egiteko daukan ahalmena areagotuz, betiere oraingo beharrianak eta proiektuak albo batera utzi gabe.



### Xedek

Udal-aurrekontua egiterakoan ardatz izan diren xedek honako hauek dira:

- Tokiko garapena bultzatzea jarduera ekonomikoaren sustapenaren bidez.
- Gizarte-kohezioan eragingo duten gizarte-politika aurreratuak garatzea.
- Etxebizitzaren lorpenean, aparkalekuan eta mugikortasunean aurrera egitea ahalbidetuko diguten politikak sustatzea.
- Getxoz gozatu: kultura, aisialdia eta kirola.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bultzatzea.
- Getxo berriztatzen aurrera egitea ekipamendu eta proiektu estrategikoak garatuz.
- Euskararen erabilera normaltzea eta euskal kultura bultzatzea (III. EBPN).
- Ingurumen-politikak ezartzea (II. Tokiko Ekintza-Plana).
- Kalitatearen kudeaketa baliabide publikoen kudeaketan eta erakundeko pertsonen asebetetzean eraginkortasuna hobetzeko.
- Hiriaren mantentze-lanetarako oinarrizko zerbitzuak eta hiritarren segurtasun-maila egokia bermatzea.

## Jarduera-Eremuak 2015

Udal-Aurrekontuak 2012-2015 Legegintzaldi-Plana 7 jarduera-eremu nagusiren inguruan garatzen du eta horiek dagokien partida ekonomikoek hornitzen ditu, hotz:

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
1.- Kalitatezko oinarrizko zerbitzuak	32.936.213	410
2.- Getxoz gozatu: Euskara, kultura, aisialdia, kirola	19.816.322	244
3.- Gizarte-politikak (gizarte-kohezioa)	15.163.632	189
4.- Getxo berriztatzea (proiektu estrategikoak)	6.666.202	83
5.- Jarduera ekonomikoaren sustapena	2.166.803	27
6.- Herritarrekiko komunikazioa, parte-hartzea eta gardentasuna	1.655.371	21
7.- Zorroztasun ekonomikoa eta eraginkortasuna kudeaketan	18.923.706	236
<b>GUZTIRA</b>	<b>97.297.660</b>	<b>1.209</b>

# Jarraian, partidarik aipagarrienak eskaintzen dira

## 1. ARDATZA: KALITATEZKO OINARRIZKO ZERBITZUAK


Euro

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
Bide garbiketa	5.243.932	65
Zaborrak biltzea	4.048.326	50
Hondartzen garbiketa	463.200	6
Getxo, hiri segurua	8.493.135	106
Uraren hornidura-sarean eraginkortasuna hobetzea	4.748.182	59
(*) Inbertsioak: Sarearen sektorizazioa eta jarioak kontrolatzea eta detektatzea eta beste batzuk	330.000	4
Kaleen eta espaloien mantentze-lanak	3.272.711	41
(*) Inbertsioak:	1.162.000	14
Mugikortasun iraunkorra eta irisgarritasuna:	1.444.743	18
Argiteria publikoa eta haren eraginkortasuna hobetzea	2.237.971	28
(*) Inbertsioak:	473.000	6
Parkeen, lorategien eta berdeguneen kalitatea	2.448.745	30
Hilerria	342.890	4
Osasun publikoa eta kontsumo arduratsua	192.369	2
<b>Zabor biltzea eta kale garbiketa</b> Hiriko garbiketa eta zabor-biltzea zerbitzuaren kontratu esleitu berriarekin, zerbitzu iraunkorragoa ezarri da (hondakin gutxiago sortu eta botako dira, hondakin gehiago birziklatu eta balioztatuko dira), eta horrek leundu egingo du pertsonen gaineko eragina: zarata eta kutsatzaile gutxiago, zabor biltzetaren eta garbiketaren ordutegi eta maiztasun hobekak...		

## 2. ARDATZA: GETXOZ GOZATU: EUSKARA, KULTURA, AISIALDIA, KIROLA

Euro

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
Kirola	8.401.350	105
Kultur jarduera	4.992.187	62
Musika Eskola	2.673.586	33
Euskara eta udal Euskaltegia	2.176.416	27
Ingurumena babestea	625.660	8
Aisia-jarduerak, gazteria eta jaiak	731.034	9
Kultura, arte, aisia eta kirola direla medio Getxo erakargarriagoa izan dadin nahi dugu, horrek guztiak bermatuko baitu merkataritzaren, ostalaritzaren, turismoaren eta abarreko arloen iraupena.		
<b>Kirola</b> Getxo izendatu dute Europako Kirol Hiririk Onena 2014an. Sari hori jaso izana Udalaren, elkarten eta getxoztar guztien arteko elkarlanari zor zaio, denek egin baitute apustu pertsona guztien jarduera fisikoari lotutako bizimodu osasungarriaren alde. Erreferentziatzko instalazioak mantentzea, kirol elkartei laguntzea eta lehiaketarik gabeko kirol eskaintzari zaintzea: horietatik dira 2015erako Aurrekontuan ezarritako helburuak.		
<b>Kultura jarduera</b> 2015erako Aurrekontuaren jarduketara lerro nagusiak, 2012-2016 aitorako Kultura Plan Estrategikoaren ildotik, xede izango dute kultura-eragileei laguntzea, batez ere sorkuntza lanean, euren jarduerarako behar dituzten baliabideak eskainiz eta eskura jarri. Gainera, eskaintzen den programazioa berrikusiko da, beraren edukiak Planari egokitzeko.		
<b>Euskara</b> Euskararen erabilera sustatzeko lana da 2015eko erronka nagusia, gure udalerririk arlo horretan duen erronka handia, euskararen munduko eragileekin (Euskalgintza) nahiz Getxoko gizarte bizitzako esparru estrategikoetako gizarte eragile guztiekin batera.		
<b>Gazteak</b> Gazteen arloan, nerabeen aisiarako eskaintza erakargarria sortuko da eta gazteei emantzipatzen lagunduko dieten ekintzak sustatuko dira, beste jarduketara ildo batzuen artean. Aurten jarriko da martxan lonjetarako bitartekaritza proiektu bat, Gaztelonjak izenekoak, bai eta gizarteratzearen eta esku-hartze sozialaren arloetako lana ere. Horretaz gainera, Romoko gazte kolektiboarekin elkarlanean, autokudeaketarako proiektu batean lan egiten jarraituko da.		
<b>Jaiak</b> Herriko jai batzordeekin elkarlanean segituko dugu kalitatezko jaiak antolatzeke, askotarikoak eta herritar guztientzat egokiak, atsedenerako eskubidearen eta jaiaren arteko oreka bilatuz beti.		



## 3. ARDATZA: GIZARTE-POLITIKAK (GIZARTE-KOHESIOA)

Euro

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
Gure adinekoak eta mendekoak artatzea:		
Udal-egoitza	5.495.132	68
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	2.366.000	29
Nagusien-Etxeak	224.600	3
Pertsonentzako laguntzak (etxebizitza, elikagaiak, arropa, oinetakoak...)	1.400.643	17
Hezkuntza (garbiketa eta konpontze lanak ikastetxeetan, garbiketa, atezaintza, eskolaz kanpoko jarduerak...)	2.084.399	26
Garapenerako lankidetzak	499.618	6
Elkarteei laguntza	365.200	5
Pertsonekin eta familiekin esku hartzea	360.500	4
Drogazaletasuna prebenitzea	245.748	3
Berdintasuna	247.521	3
Kulturartekotasuna eta immigrazioa	135.968	2

Gizarte laguntza hobetzea eta pertsonak euren ohiko ingurunean zaintzea da gure erronka. Gure baliabideak eta gure eskumenak kontuan hartuta, gastua modu proportzionalan banatuz gero, diru kopuru hauekin espero dugu eutsi egingo diogula udal honek herriko biztanleei eskaintzen dien gizarte laguntzaren maila handiari.

Euren adinagatik, egoera ekonomikoagatik edota familia egoeragatik ahulen dauden kolektibo eta pertsonen laguntza ematearen aldeko apustu horretan, Getxoko Udalaren 2015erako Aurrekontuan 14 milioi euro jarri dira gizarte politika aurreratuak gauzatzeko: Udal Egoitza, Etxeko Laguntza Zerbitzua, ke-detektagailuen mantentzea (754 etxebizitzatan instalatu dira), edo mendekotasuna duten senideak zaintzen dituzten pertsonen laguntzako zerbitzua. Gaur egun 56 pertsona bizi dira Udalaren tutoretzapeko apartamentuetan. Zerbitzu hori emateari dagokionez, Estatuko lehenengoetarikoak gara.

Hezkuntzaren atalean, 2,1 milioi euroko aurrekontuak barruan hartzen ditu bai ikastetxeen mantentzea (konponketak, garbiketa, atezaintza...) bai eskolaz kanpoko jarduerak, lanbide kualifikaziorako programak, gazteentzako ikasketa gelen erabilera...

III. Berdintasun Planaren indarraldia (2011-2014) amaitu eta gero, hura ebaluatu ondoren, IV. Plana prestatuko da eta berak gidatuko du 2015-2018 bitarteko legegintzaldia. Ahalduz Eskola edota Sexu Informaziorako Bulegoa, ikastetxeetan berdintasunari buruzko sentsibilizaziorako eta emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko egingo diren jarduerak, emakume elkarteentzako diru-ekarpenak eta lokalen lagapena... Jarduera horiek guztiek gizarte berdinzaleagoa sortzen laguntzen dute eta emakumeek gai publikoetan parte hartzeko bide bat zabaltzen dute.

Nazioarteko lankidetzak proiektuetarako egin beharreko ekarpenak, boluntario elkarteentzako babesa, droga-mendekotasunen prebentzioa, Getxo kultura arteko hiri gisa sendotzea edota hezkuntza arloko esku-hartzearen nahiz esku-hartze psikosozialaren programak dira Udalak garatzen dituen gizarte politiken beste zutabe garrantzitsu batzuk.

## 4. ARDATZA: GETXOREN BERRITZEA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Euro

KONTZEPTUA	GASTOA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
- Etxebizitza	889.258	11
- Hirigintza	2.092.117	26
- Proiektu estrategikoak	3.684.827	46

**Getxo Antzokia eta Musika Eskola**  
Musika Eskolaren Algortako egoitza berria 2015ean inauguratzeko da. Otsailean onetsi da Getxo Antzokia-Musika Eskola eraikitze proiektuaren azken-aurreko fasea, hain zuzen ere 'sestrapeko aretoetako akaberren' fasea. Lizitazio aurrekontua 4,63 milioi eurokoa da, eta lanak egiteko epea, berriz, 47 astekoa. Fase horretan egin behar diren akaberak kualifikazio tekniko handikoak dira eta hainbat espezialitate desberdin biltzen dituzte, batez ere egokitze akustikoaren arlokoak. Gehienbat Getxo Antzokiko erabilera anitzeko aretoari eta Musika Eskolari dagozkie.

**Romo Kultur Etxea**

Romo auzoko ekipamendu berria eraikitze proiektuaren azken fasea martxoan onetsi da. Erabakian haren lizitazioa onartu da 2,43 milioi euroko aurrekontuarekin eta obrak burutzeko 49 asteko epearekin. Fase horrek barruan hartzen ditu eraikineren barrualdeko egokitze lanak. Horrela, bada, pintura lanak, sabai izunak, burdineria eta igogailuen, argien eta telekomunikazioen instalazioak egingo dira, beste batzuen artean.

**Gobela erreka egokitzea (URAK egindako obra)**

Honako atal hauek ditu obrak: egokitze hidraulikoa, ingurumen-lehengoratzeko eta urbanizazio berria Errekaganeko tartean (Gobelako kiroldegitik hasi eta Leioako zubiraino), zati bat oinezkoentzako eremu bihurtzea eta lotura egitea Gobelako kiroldegitik Avanzada errepidera doan bidegorriarekin. Gaur egun laugarren tarte lizitatzen ari da, Fadura aldekoa, Salsiduko obrak Larrañazubirekin lotuko dituena.

**Punta Begoñako galeriak zaharberritzea**

Punta Begoñako proiektu estrategikoak sekulako garrantzia du Getxoko, Bizkaiko eta Euskadiko arkitektura eta historia ondarea lehengoratzeko eta beraren balioa agerian jartzeko. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak babestu egiten dute.

Hiru urteko lehen programa gauzatzen ari da: lehenengo eta behin, materialen egoeraren diagnostikoa eta egungo egoeran eragina izan duten eta baduten faktoreen azterketa, bai eta oroimen sozial, arkitektoniko eta teknikoaren berreskurapena ere. Ekitaldi honetan galeriak herritarrentzat zabalduko dira eta hainbat erakusketa eta museo-jarduerak egingo dira leku horretan. Planaren lehenengo fase horretan behar diren neurriak hartuko dira materialak gehiago hondatu ez daitezten, aurreikusitako ikerketa prozesuak burutu eta gero. Hori guztia egiteko 2,1 milioi euroko aurrekontua jarri da.

Datorren apirilaren 2an hasiko dira bisita gidatuak galerietan, jendeak Getxoko eraikin historiko hori zaharberritzeko lanak zertan diren jakin ahal izan dezan. Egiten ari diren ikerketa guztien lehenengo emaitzak erakutsi nahi zaizkie bai Getxoko herritarrei bai bisita egiten diguten pertsona guztiei. Gure arkitektura eta historia ondareko altxor handienetarikoa dira galeriak, eta turismoa erakartzeko ahalmen izugarria dute; beraz, udalerrirako aberastasun iturri ere izango dira.

Arlo anitzeko ikuspegi integraletik egiten ari da galeriak zaharberritzeko eta haien balioa agerian jartzeko prozesua. Prozesu horrek barruan hartuko ditu higiezinaren gaineko esku-hartze zientifikoa eta arkitektonikoa eta errespetatu egingo ditu UNESCOk ezarritako irizpideak, ikerketa historiko eta soziala, zabalkundea eta herritarren parte hartzea.

Kontua ez da zaharberritzea soilik, baizik eta ikerketaren eta berrikuntzaren bidez ondasunak berreskuratzea eta haien balioa agerian jartzea, garrantzi handia emanez jakintzaren transferentziari eta zabalkundeari.



KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
Ekonomia sustatzea (merkataritza, ostalaritza, ekintzaileak, gizarte-izaerako Enpresa-ekimenerako laguntzak, enplegurako laguntza)	1.595.863	20
Turismoa sustatzea	570.940	7
<p><b>Esparru estrategikoak</b>            Ekimen ekonomikoak garatzeko laguntza eta ekimen horien dinamizazioa, Getxoko udalerrirako zehaztutako esparru estrategikoetan: kulturaren eta sormenaren industriak, kirolaren eta ongizatearen teknologiak, eta turismo kulturala zein wellness turismoa.</p> <p><b>Merkataritza eta ostalaritza babestea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Getxo Aktibatu! izeneko programa, Kultura arloarekin eta Getxo Kirolak arloarekin lankidetzan estuan.</li> <li>• Merkataritza Berdea izeneko proiektua, herriko txikizkako merkataritzaren garapen ekonomiko iraunkorra sustatzen duena.</li> <li>• Erakunde publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustapena, Merkataritza Mahaiaren eta GetxON markarako babesaren bitartez.</li> <li>• Getxo Market azokaren (azken izakinak saltzeko azoka) 2. edizioa.</li> <li>• Herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko kanpainak.</li> <li>• GetxONegin pintxo lehiaketa.</li> <li>• Merkataritza elkarte eta taldeek antolatutako dinamizazio ekintzak garatzeko laguntzak.</li> </ul> <p><b>Ekintzaileak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Getxon Elkarrekin: ekintzailetzarako gaitasunak sustatu eta garatzeko talde-trebakuntzako programa, Getxon proiektu berritzaileak sortu eta abian jarri nahi dituzten pertsonentzat antolatua. Oinarritzat hartzen du Team Academy deritzon teknologia, Jyväskyläko (Finlandia) Unibertsitate Politeknikoan garatutakoa, talde-ekintzailetzaren liderrak garatzeko.</li> <li>• Wanted ekimena, Gazteria arloarekin batera.</li> <li>• Pertsona ekintzaileentzako aholkularitza zerbitzua. Barruan hartzen ditu enpresa ideien azterketa, enpresa planaren garapena eta enpresa martxan jartzeko laguntza.</li> <li>• Prestakuntza (enpresa kudeatzeko ikastaroak, aurre-ekintzailetza...).</li> </ul> <p><b>Gizarte izaerako enpresa ekimenak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte erakundeekin batera (EMAUS elkarte CEDEMOS proiektuarekin, LANTEGI BATUAK Andra Mariko digitalizazio zentroarekin, edota PEÑASCAL FUNDAZIOA Fadura ostalaritza proiektuarekin).</li> <li>• Europako programak, hala nola BALORA programa, Getxoko mikroETE-en egokitzeko ahalmena eta lehiakortasuna indartzea helburutzat duen programa hain zuzen, edo DELI programa, enpresa baten jabe diren edo ekintzaileak diren pertsona etorkinei laguntzeko tokiko politiken eraginkortasun handiagoa lortzea xede duena, ekonomia sustatzeko eta tokiko garapena lortzeko politikaren atal gisa, inklusioaren eta aniztasunaren arloetako politikari lotuta.</li> </ul> <p><b>Enpresak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresentzako aholku zerbitzua (merkatua, komunikazioa, merkataritza-kudeaketa, offline/online marketina, ekonomiko-finantzarioa, GB, erakundea/pertsonak, lege eta zerga aholkularitza, enpresa estrategia).</li> <li>• Aholkularitza teknologikoa (teknologia berriak, IKTak, DBLO, Informazioaren Gizarteko Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoari buruzko Legea).</li> </ul> <p><b>Getxo Working</b>            Coworking gunea: "Getxo WORKING", partekatutako lan eremu bat Getxo Elkartegiko instalazioetan, euren negozio plana landu nahi duten pertsona ekintzaileei eta oraindik euren jarduerak egiteko lokalik eskuratu ez duten enpresei zuzenduta dagoena.</p> <p><b>Mintegia – Berrikuntza Gunea</b>            Mintegiaren eta berrikuntza gunearen irekiera Benturillenako egoitzan. 35 pertsonarentzako lekua dauka. Enpresa proiektuak kokatuko dira bertan, eta ekintzailetzaren eta toki ekonomia-aren sustapenerako balioko du.</p> <p><b>Turismoa</b>            Helburua da udalerraren kirol eta kultura ahalmena baliatzea pakete turistiko erakargarriak lortzeko, Euskadin garatzen diren beste jarduerak batzuen osagarri gisa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza eta jarraipen planak, turismo establezimenduen kudeaketa hobetzeko, sektorearen profesionalizazioa areagotzeko eta, horrenbestez, destino turistikoaren kalitatea hobetzeko (SICTED).</li> <li>• GETXOPASS: dohainik banatzen den txartel turistikoa, Getxon kontsumitzen duten bisitariei deskontuak eta opariak eskaintzen dizkiena.</li> <li>• Webgunea eguneratu eta modernizatzea, eta sare sozialekiko lana gehitzea, Getxori buruzko informazio turistikoa eskuragarriagoa izan dadin.</li> </ul>		

## 6. ARDATZA: HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA

Euro

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
Herritarrak artatzeko bulegoak	947.834	12
Herritarrekiko komunikazioa:		
- GetxoBerri aldizkaria inprimatzea, maketatzea eta postontzietan sartzea	177.889	2
- Kirol-Arreta Zerbitzua	88.520	1
- Getxo Irratiaren gastuak	13.000	-

## 7. ARDATZA: ZORROZTASUN EKONOMIKOA ETA ERAGINKORTASUNA KUDEAKETAN

Euro

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	GASTUA BIZTANLEKO
Udal-erakinen mantentze-lana eta parke mugikorra	3.815.259	47
Zorpetzea	3.709.241	46
Langileen kudeaketa eta kalitatea	2.655.112	33
Zerga-kudeaketa, kontabilitatea eta diruzaintza	2.747.154	34
Kontratazioa, idazkaritza eta administrazio orokorra	2.437.355	30
Modernizazio teknologikoa	1.510.746	19



Hauek dira 2015eko ekitaldirako aurrekontuko sarrerak bere sailkapen ekonomikoaren arabera:

KONTZEPTUA	Milaka eurotan
<b>ZUZENENKO ZERGAK</b>	<b>21.842</b>
Ondasun Higiezinaren gaineko zerga (OHZ)	14.750
Ibilgailuen gaineko zerga	4.500
Lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga (Gainbalioa)	1.650
Ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ)	942
<b>ZEHARKAKO ZERGAK</b>	<b>1.460</b>
Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko zerga (EIOZ)	1.460
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK</b>	<b>14.292</b>
Ura eta estolderia	4.462
Zaborra	3.987
Isunak, premiamendu-errekarguak, berandutza- eta gerorapen-interesak	1.864
TAO	1.211
Bestelakoak	2.768
<b>DIRU-LAGUNTZAK</b>	<b>49.102</b>
BFA: Udalkutxa	45.679
BFA: Gizartekutxa	680
BFA: Etxez etxeko laguntza	341
BFA: Hondartzen garbiketa	381
EJ: Gizarte-larrialdia	594
EJ: Lanbide-hastapenentarako Ikastegia (LHI)	498
Bestelakoak	929
<b>ONDARE-SARRERAK</b>	<b>742</b>
Gordailuen interesak	605
Bestelakoak	137
<b>KAPITALEN TRANSFERENTZIAK</b>	<b>310</b>
<b>FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKETA</b>	<b>150</b>
<b>UDALAREN SARRERA, GUZTIRA</b>	<b>87.898</b>
GETXO KIROLAK-EN SARRERAK	3.690
UDAL-EGOITZAREN SARRERAK	3.309
MUSIKA ESKOLAREN SARRERAK	757
KULTUR ETXEAREN SARRERAK	1.458
<b>SARRERAK</b>	<b>97.112</b>

2015eko aurrekontua zergak igo gabe eta zorpetze berrietara jo beharrik gabe finantzatzen da.

## Zergak eta Tasak

### Udal zergak eta tasak izoztea

Udal zerga eta tasa guztiak 2015erako izoztu eta gero, kontzeptu horien bidezko diru-sarrerek 2014ko maileri eusten diete. Antzeko tamaina duten Bizkaiko 11 udalerriekin alderatuta, Getxo bosgarren lekuan dago presio fiskalari dagokionez. Zerga edo tasa nagusiei dagozkien tarifak eta zerga-tasak, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten gainerako udalerrietan indarrean daudenekin alderatuta, honako hauek dira:

#### TARIFA/ZERGA-TASA

KONTZEPTUA	GETXO	BATEZ BESTEKOA	GEHIEN UDALERRIAK	GUTXIEN UDALERRIAK
Udalerriak				
OHZ	%1,18	%1,18	%1,36	%1,00
JEZ	%3,10	%3,28	%4,14	%2,60
EIOZ	%5	%5	%5	%5
Ibilgailuak	124,75 €	135,23 €	143,39 €	112,00 €
<b>LBGZ (Gainbalioa)</b>				
-Katastroko balioa	%1,01	%0,89	%1,01	%0,0
-Egotzi dakioken gutxiengo balioa	%0,13	%0,10	%0,17	%0,00
Zabor-bilketa	90,68 €	73,84 €	111,31 €	54,28 €
Ur-horniketa	101,86 €	101,86 €	101,86 €	101,86 €
Saneamendua	126,26 €	120,85 €	132,36 €	103,86 €



# Zerga-politikak ekonomia suspertzeko

Getxoko Udalak, jarduera ekonomikoa bultzatzeko beharraz jabetuta, bereziki, merkataritza, ostalaritza eta enpresa txikien alorrean, 2015ean zergak eta tasak izozteaz gain, honako zerga-neurri hauek ere hartzen ditu jarduera ekonomikoa bultzatzeko:

## JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA (JEZ)

- Zerga-salbuespena jardueraren lehenengo 2 urtetan.
- Kuotaren %50era bitarteko hobaria enplegua sortzeagatik.
- Kuotak hainbanatzeko aukera ekitaldi berean jarduerari alta eta baja emanez gero.

## ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA (EIOZ) ETA OBRA-TASA

- %2ko karga-tasa murriztua babes ofizialeko etxebizitza berriak sustapen pribatuko erregimenean eraikitzeke.
- Kuotaren %95era bitarteko hobaria interes bereziko edo udal-erabilerako obretan, gizarte-egoerak, kulturalak edo historiko artistikoak izateagatik, enplegua sustatzeagatik edo aldi baterako ostatua eskaintzeagatik.
- Kuotaren %90eko hobaria oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obren kasuan.
- Kuotaren %90eko hobaria eguzki-energiaren aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak barnebiltzen dituzten obren kasuan.
- Kuotaren %40ko hobaria fatxadak edertzeko obren kasuan.

## ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (OHZ)

- %90eko hobaria OHZan urbanizazio- eta eraikuntza-enpresentzako eta higiezinaren sustapenerako enpresentzako.
- OHZko kuoten hainbanaketa eska daiteke, titularra identifikazio fiskaleko koderik gabeko jabe erkidego bat denean; esate baterako, dibortzio kasuetan.

## ZABOR-BILKETAREN ETA ESTOLDERIAREN GAINEKO TASAK

- %50eko hobaria jardueraren lehenengo urtean.

## ZERGA-ZORRAREN ORDAINKETA

- Zerga-zorren ordainketa geroratzea interesik gabe nahierarako ordainketaren figuraz baliatuz.
- Administrazio-bidean berrikustera sartzeko erraztasunak zerga-zorren betearazpena etenda. Aldez aurretik eskaera eginda, 5.000 eurotik beherako zorrak eten ahal izango dira berraztertzeke errekursoaren kasuan bermerik eman beharrik gabe.
- Ez dute geroratzeko edo zatikatzeke bermearen beharrik ez 10.000 eurotik beherako zorrak, ez 60.000 eurotik beherako zorrak, eskatzen den epea gehienez 12 hilabetekoa bada, ez eta 100.000 eurotik beherakoek ere, eskatzen den epea gehienez 6 hilabetekoa bada. Gainera, 2015eko urtarriletik aurrera zuzenbide publikoko diru-sarrera guztien geroratzea edo zatikatzea eska daiteke, eta ez bakarrik zerga izaerako diru-sarrerena.
- 100.000 eurotik gorako zerga-zorren geroratzeak emateko gehienezko epea 18 hilabetetik 36 hilabetera luzatzea.

## TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

- %75eko hobaria motor elektrikoa duten ibilgailuentzako.

## ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIAGATIKO TASA

- %50eko hobaria jardueraren lehenengo urtean.

## Laguntza fiskalak kalteturiko edo gizarte-intereseko sektoreei

Jarraian adierazten diren zerga-ordenantzetan aurreikusitako hobariez eta salbuespenez gain, Udalak laguntza-ildo berria ezarri du OHZ ordaintzeko. Horien onuradunak, batez ere, 65 urtetik gorakoak izango dira (aurreko deialdian emandakoen %46a) eta, baita, familia- eta gizarte-talde batzuk ere.

### FAMILIA UGARIAK

%60ko hobaria OHZren kuota osoaren gain; %95era bitartekoa Getxo Kirolak-en tasetan; %50era bitartekoa estolderia-tasetan, udal Musika-Eskolan eta administrazio-agiriak egiterakoan; %40era bitartekoa udal-ludoteka zerbitzuagatik tasan.

### ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (OHZ)


- %50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitzaren kuotan bost urtetan.
- %50eko hobaria Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotan "etxebizitza hutsaren programaren" baitan lagatzen diren etxebizitzetara.

### JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA (JEZ)

- Irabazi asmorik gabeko erakundeak eta gutxitu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarteak eta fundazioak salbuesirik egongo dira.

## Zorpetzea:

Hau da Getxoko Udalaren maileguen bilakaera:



Mailegu horiek guztiak amaitu gabeko inbertsioei lotuta daude. Ordainketei aurre egin behar zaaien unera arte, inbertsioen ziurtapen edo burutzapen erritmoaren arabera, mailegu horiek banku erakundeetan gordailututa edukitzen dira eta era horretara zorpetzearen kostua baino askoz errentagarritasun handiagoa lortzen da.

Mailegu horiek 6 milioi eurotik gorako irabaziak ekarri dizkiote Udalari azken 7 urteetan. Irabazi horiek era guztietako jarduerak finantzatzeko erabili dira, eta aukera eman dute, udal zergak eta tasak bitarte horretan izoztuta egon diren arren, zerbitzuen prestazio mailari eusteko (gizarte politikak, kalitate handiko oinarrizko zerbitzuak, sustapen ekonomikoa, kultura eta kirola...) eta inbertsio estrategikoak finantzatzeko (Romo Kultur Etxea edo Getxo Antzokia-Musika Eskola).

Mailegu horiek sinatu zirenean, korritu-tasen aldetik baldintzak izugarri onak izan ziren. Horregatik, Getxoko Udalak ez du egokitzat jotzen mailegu horien amortizazioa aurreratzea.

